



## Udal ordezkaritza berritzeko garaia

Udaletako eta Batzar Nagusietako ordezkari berriak aukeratzeko eguna, igande honetan / 4-11

## Hautagaiei elkarrizketa

Andoaingo EH Bildu, PSE-EE, EAJ-PNV, Elkarrekin Podemos eta PP / 4-8

Diaz eta Benitez, "Las buenas compañías" filman ikusi ahal izango ditugu Bastero Kulturgunean / 16

Urnietako senior mailako futbol taldeak Preferentean aritzeko igoera eskuratu du / 12



**SAGARDOAREN TXAPELKETA™** Orona

Maiatzak 29, Astelehena 18:00etik aurrera, Galarreta Jal alai (Hernani). Sarrera 5€

<b>01. PARTIDA</b> 2 SETS : 16 TANTORA - 3 SETA : 8 TANTORA	<b>02. PARTIDA</b> 2 SETS : 16 TANTORA - 3 SETA : 8 TANTORA
GERITZA X IZKITA EZKURRA II ZUBIRI	Alorrenea URRIZA MARTIRENA
BERRIZARTUA SEGURDLA JUANENEA	Petritegi ALDABE AZPIROZ

ORIA MENDI ABURUZA oialume zar Orona AIURRI

**ERREMONTARI**



# “Omenaldia egingo diogu Etxeberri plazak eman digun guztiari”

**AINARA DE MIGUEL IKASMIN**

Osagai ugari bilduko ditu ekainaren 11n Etxeberri plazan egingo den liburua festak: liburu-trukaketa, hitzaldiak, abesti-topaketa...

**Alba Cabrera Jauregi URNIETA**

Hitzordu berezia izango da ekainaren 11n Etxeberrin: “Esan diren eta ez diren hitzen eguna” antolatu dute plazarekin lotura berezia duten merkatariak, Ainara de Miguel Ikasmineko kidearen proposamenez.

**“Esan diren eta ez diren hitzen eguna” antolatu duzue Etxeberri plazaren bueltan zaudeten merkatariak. Zeintzuk dira, jada, esan diren hitzak, eta zeintzuk ez?**

Orain hamabi urte sortu zen Ikasmin, esan ez ziren hitzetan oinarrituta. Hitzak esateko jaio zen proiektua, ordura arte, ezin nituelako esan. Esku-orriak inprimatu eta, saltokiz saltoki, enpresaz enpresa, neure burua aurkezten eta hitzak esaten: elkartu behar ginela, bakarrik ezin nuela, Ikasmin ireki nahi nuela eta Urnieta ezagutu nahi nuela... Horrela ezagutu nituen ekainaren 11ko festan prestatzen eta laguntzen ariko diren merkatari asko eta asko. Plazaren bueltako salerosleek antolatu dugu, lehen aldiz, gainera.

**Hortaz, berrietasunak dakarren ezjakintasunarekin, baina baita motibazioarekin ere, ezta?**



Ainara de Miguel. AIURRI

Bai, jakina! Ilusio handiarekin. Garai jakin baten atalak markatu nahi nituen, eta, hasiera batean, hamargarren urteurrena egin nahi nuen, berez, baina ezin izan zen, testuingurua medio. Ondorioz, egokiagoa ikusten nuen aurtengo ekaina. Hala, lehenik, egunerokoan nire kide

emozionala izan den Victor Chapporri aipatu nion ideia. Ezin hobea iruditu zitzaion. Jarraian, Garbiñe Larrearekin ipini nintzen harremanetan Ikasminentzat puska handia izan delako bera, eta baietz! Bide beretik joan zen Biak-en zein BM-n, proposatu nuenean. Bestalde,

harreman estua dut Muazpi harategiko Peio Urretabizkaiarekin, merkatarien borrokan hasiera-hasieratik egon garelako elkarrekin. Hori ere prest, baita Lekar eta Suirako kideak ere. Lagun mina dut, era berean, lehen Osanen lan egiten zuen Jaione Mariezkurrena. Bada, berak haurren txokoan, antzerki bat egingo du eta irakurketa feminista gidatuko du herriko Bagara talde feministak.

Biribil atera da antolaketa-lana, eta ez da kasualitatea, merkatarien komunitatea lotuta baitago. Erraza izan da, elkarlanean ezagutu dugulako elkar eta hauxe ere horrela joan delako, elkarlanean.

**Egitarauari erreparatuko bagenio, adin eta gustu guztiari begirako proposamena da.**

Larrearekin emango diogu hasiera egunari. Bien bitartean, manta batzuk jarriko ditugu; horietan, askotariko liburuak izango dira, baita dinamizatzaileak ere: haur literatura, literatura beltza, irakurketa feminista... Euskal literatura izango dugu oinarri, oso inportantea iruditzen zaigulako nabarmen-tzea Euskal Herriko merkatarien plaza dela, eta euskaraz bizi garelako. Hori horrela, euskarak pisu handiena izan arren, beste hizkuntza guztiak, kultura diren aldetik, ongi-etorriak izango dira. Liburu trukea egiteko aukera ere egongo da nahi duenarentzat, eta aurpegiak margotzen egongo da Suirara.

Garbiñe Larreak bere liburuen aurkezpenarekin bukatzen duenean, BM supermerkatuaren xextoa ere zozkatuko dugu eta zizka-mizkei ekingo diegu, Celtics-en eta Biak-en eskutik. Biek ala biek eskaintza berbera egingo dute: saltzen dituen pintxo-

tatik 30 zentimo festara bideratuko dira. 13:00etan, Kantazauenen txanda iritsiko da, berriek ere baiezkoa eman ziguten gonbidapena jaso bezain pronto. Hor hitzak, idatziak baino, kantatuak joango dira!

**Aitzakia ederra izan al da plazaren inguruko merkatariak biltzeko?**

Bai, noski! Esaten direnak baino, entzuten diren hitzak daude merkatari baten izaeran. Antolaketa-lanetan aritu garen guztiak gaude ados egunari jarririk izenburuarekin. Ziurrenik beste hainbat ofiziotan ere horrela izango da, baina merkatarion kasuan, entzun egiten dugu. Horregatik iruditzen zitzaidan interesgarria, hainbeste eman digun plaza honetan hitzak esateko aukera edukitzea, liburuen bidez, abestien bidez...

**Herrian, pixkanaka, indarra hartzen ari den plaza da Etxeberri, geroz eta ekintza gehiago antolatzen baitira bertan. Pozgarria al da hori?**

Etxeberri plazak baditu herri batean eduki behar diren zerbitzuetako asko: anbulatorioa, adinekoen eguneko egoitza, haur eskola, supermerkatua, jantzien denda, kafetegia, taberna, hortz-klinika, akademia... Herri baten kultura osatzen duen eta adin guztietako jendea biltzen duen plaza bat da Etxeberri. Hemen sortzen diren sinergiak ikaragarriak dira, leku magikoa baita. Omenaldia egingo diogu Etxeberri plazak eman digun guztiari.

**"ERRAZA IZAN DA ANTOLAKETA, MERKATARIEN KOMUNITATEA LOTUTA BAITAGO"**

## LARRAMENDI BAZKUNAK ADMINISTRARIA BEHAR DU

BAZKUNAREN DIRUKONTUAK ETA ADMINISTRAZIOA KUDEATZEKO

### Eskatzen da:

- Euskaraz lan egiteko erabateko gaitasuna izatea hitzez zein idatziz.
- Dirukontuak kudeatzeko aplikazio informatikoen erabilera ongi ezagutzea.
- Enpresa kudeaketa eta administrazio ikasketarik egin izana.

### Baloratuko da:

- Gisa bereko lanetan izandako eskarmentua.
- Euskalgintzarekin lotura duten ekimen edo eginkizunetan lan egin izana.
- MLKB-eko bazkide izatea.
- Ingelesa edo frantseseko ezagutzarik izatea.

### Eskaintzen da:

- Astean hamar orduko laneguna. Berehala hastekoa.

### Aurkezteko epea:

- Curriculumak aurkezteko epea ekainaren 9an amaituko da.

Bidali edo aurkeztu zure curriculum-a [harrera@larramendibazkuna.eus](mailto:harrera@larramendibazkuna.eus) helbidera edo helbide honetara: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. Dr. Huizi kalea, 15-1. 20140 ANDOAIN (656-782-521)



# “Eguneroko objektuekin egiten dut magia, batez ere”

**JOSU ZUBIA POTX MAGOA**

Potx magoak ikuskizun berezia taularatuko du Xoxokan, ostiral honetan. Arratsaldeko 18:30ean izango da hitzordua. Josu Zubia ezkututzen da Potx magoaren atzean

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

**Xoxokan izango zara ostiral honetan: “Eta, orain...Potx magoa 4.0”. Zerekin egingo du topo bertara gerturaten denak?**

Potx magoaren laugarren ikuskizunarekin joango naiz Xoxokara. Pailazo baten magia-ikuskizunarekin egingo dute topo. Ikus-entzule zabalarentzat dago zuzendua, hau da, ondo pasatzeko aitzakia da haurrentzat, gazteentzat eta helduentzat.

**Berriki, Andoainen izan zinen. Zer bilatzen du artistak horrelako ekitaldietan?**

Alde batetik, publikoari pailazoaren beste begirada bat eskaintzea. Izan ere, balioa kentzen zaio, infantilizatu egiten da pailazoaren rola. Hala, Potx magoak badu beste zerbait, ahaldunduta dago. Ridikuluarekin jolasten du pailazoak, baina ez da inozoa.

Beste alde batetik, logikak pisu handia duen mundu batean bizi gara. Bada, magiaren bidez, esperantza izpi txiki bat pizten da, jolasteko, amesteko zirrikitua. Jakin, guztiek dakigu trikimailu orenen atzean engainu txiki bat dagoela, baina plazerarekin lotuta dago, ondo pasatzeko egina. Nire kasuan, ez ditut azpiegitura eta baliabide handiak erabiltzen. Eguneroko objektuekin egiten dut magia, batez ere.

**Ez zara beti oholatza gainera bakarrik igotzen. Lotx izan ohi duzu alboan.**

"Aireportuan" ikuskizunarekin gabiltza hara eta hona. Oholatza gainean lau pertsona egoten gara "Potx eta Lotx"-en izenean. Herriz herri ibiltzen gara, batez ere familiei bideratutako emaldiak egiten, baina, adinari dagokionez, tarte oso zabalari erantzuten diogu.



Potx magoa. POTX

## "MAGIA EGITEN DUDANEAN, BARRE BATEKIN DATOR BETI PUBLIKOAREN HARRIDURA"

**Umorea eta magia uztartzen dituzu, euskara oinarri.**

Bizi dugun lekuari, elikatu gaituen hizkuntzari erantzun bat emateko beharra sentitzen dut. Norentzat egingo dut nik hau? Elikatu nauen horrentzat. Euskaraz, magiaren mundua elikatzeke behar handia dago, gaur egun.

Talentua, handia dago eta bide luzea dugu aurretik.

**Magiak txundituta uzten al du, gaur egun ere ikus-entzulea?**

Bai, noski. Nire kasuan, umorearekin ere lan egiten dudanez, Magia egiten dudanean, barre batekin dator beti publikoaren harridura. Jarraitu egiten du jokia publikoak eta infinitua da bidea. Horregatik, garrantzitsua da elikatzen jarraitzea eta erreferente propioak ekoizten jarraitzea. Horrela, nire ustez, magiak jendea txundituta uzten jarraituko du.

**Aho zabalik geldituko al dira, beraz, ostiralean Xoxokara joango direnak?**

Animatu dadila jendea, eta etor dadila ondo pasatzeko eta gozatzeko gogoz. Beti dago publikoan trikimailuak harrapatzen ahalgintzen denik. Lasai, badakigu magia ez dela miraria, badakigu atzean zerbait duela, baina publiko onena lasai dagoena da, disfrutatzen doana, "engainatu nazatela" dioena.

## KOMUNITATEA

**SALESIARRAK** URNIETA

### Edonoren aurka lehiatu gaitzkeela ikusi da



“Euskoskills” lehiaketa entzutetsuan parte hartu dute berriki Goi Mailako zenbait ikaslek. Gogor lan egin dute azken asteetan, baina bizitako esperientziak eta lortutako emaitzek gainean pilaturiko nekea erabat ahanztarazi dietela esan daiteke. “Euskoskills” lehiaketaz ari gara, orain gutxi, Irungo Ficoba erakustazokan ospatu den ikasleen arteko lehiaketa arrakastatsuz. Lehiaketa hori, edozein heziketa ziklotan matrikulatutako ikasleei zuzenduta dago, hau da, Oinarrizko Lanbide Heziketa zein Erdi eta Goi mailako Lanbide Heziketako ikasleei zuzenduta, betiere, noski, txapelketako familia batekin lotuta badago aipaturiko zikloa.

Lehen aldiz parte hartu du ikastetxeak “Euskoskills” lehiaketan, eta argi dago ez dela azkeneko aldia izango, hala dio behintzat Xabi Setien robotikako irakasleak: “Ikasleentzat eta baita guretzat ere erronka handia izan da, ez baigenekien ziurtasun osoz horrelako lehiaketa batek eskatzen duen maila emateko moduan izango ginen, baina ikusi dugu ikastetxe guztiak antzerako beldur eta mamuekin joan garela eta alde horretatik maila berean lehiatzeko gai garela”.

Lau talde edo alorretan lehiatu dira eskolako ikasleak “Euskoskills”-en. Elkarlaneko Robotika alorrean, automatizazioko bigarren mailako 2 ikasle aritu dira; Kontrol Industrial alorrean, robotikako lehenengo mailako ikasle bat; Mekatronikan robotikako lehenengo mailako bi ikasle eta, Instalazio Elektrikoak sailean, azkenik, elektrizitateko goi mailako ikasle bat. Emaitzak ez dira batera txarrak izan. Instalazio Elektrikoak alorrean, zilarrezko domina eta, Kontrol Industrial alorrean brontzezkoa.

Bereziki pozik amaitu du elektrizitate saileko irakasle Kike Fombellidak: “Askotan zaila egiten zaigu eguneroko jardunean ikasleen motibazio-mailan eragitea, eta horrelako lehiaketek, erronka handia diren arren, eskolaz kanpokoak izate hutsagatik ikasleen artean erantzun ona jasotzen dute. Beste hitz batzuetan esanda, ikasten laguntzen die, baina ikasten ari direla konturatu gabe ia”.

Lehiaketak iraun duen bitartean, eskolako beste zikloetako ikasleak bisitan joan dira Ficobara, beren eskolakideen lana gertutik jarraitu eta bestelako alorretan zer egiten den aztertzeke asmoz. Horrela, ideia berriekin itzuli dira eskolara, eta datozen ediziotan parte hartzeke ideia buruan. Mantentze elektromekanikoko ikasleek, adibidez, soldadurako alorrean parte hartzea ez da baztertzeko, ezta erdi mailako instalakuntza elektrikoetako ikasleek instalazio elektrikoaren lehian jardutea.



# "Ordezkaritza handitzea nahiko nuke, ezkerreko gobernua lortzeko"

**PEPE IPARRAGIRRE** ANDOAINGO ELKARREKIN PODEMOSEKO ALKATEGAIA

Tere Santanaren lekukoa hartu du Elkarrekin Podemos koalizioaren lidergotzan. Talde txikia dela aitortzen du, lanerako gogoz dagoena



Elkarrizketa osoa Aiurri.eus webgunean ikusgai dago. AIURRI

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

**Andoainen jaio eta bertan bizi izan zara. Asko aldatu da herria haurtzaroko Andoain hartatik hona? Zer gogoratzen duzu?**

Izugarri aldatu da. Andoaingo industria puri-purian gogoratzen dut. 1980ko krisia, eta are gogoragoa izan zen 90ekoa. Industria gehiena desagertu eta birmoldatu zen. Egoera sozioekonomikoa, geroztik, geroz eta larriagoa dela uste dut.

**Andoainen jarraituta, zein da gus-tuko duzun tokia?**

Nire aisialdi gehiena Goiburun igarotzen dut. Golfista naiz, urte askoan jolastu dut.

**Orain, Elkarrekin Podemos koalizio-liderra zara. Buruzagiaren pape-ra barneratzea kosta egiten al zaizu? Lider hitza gogoko al duzu?**

Lider hitza ez dut batere gogoko. Lan-talde txiki baten burua naiz, besterik ez.

**Nola izan da hautagaitza aukeratzeko prozesua?**

Primariak egin genituen eta aurkeztu zen bakarra ni izan nintzen. Alderdi guztiaren baimenarekin nago hemen.

**Behartutako egoera izan da edo zure planetan sartzen zen hautagaitza izatea?**

Protagonismoa ez dut oso gogoko. Lau urte lanean igaro ondoren, erreleboa eskatzen zuen egoerak. Nire egoera pertsonala desberdina denez, eta denbora gehiago dudanez, lanean jarraitzeko urratsa eman nuen.

**Zerrenda-hautagaien artean, Olga Hernandez agertzen da. Ganemos Andoaingo zinegotzi izan zen. Bigarren postuan, zure ondoan, Tere Santana ageri da. Santana da zuen aktibo garrantzitsuena, 2023ko maiatzean?**

Momentu honetan, bai. Udaleko gestioan duen esperientzia nire-

tzat oso garrantzitsua da. Urte hauetan laguntzen saiatu naiz, hainbat batzordetan parte hartu dut eta bileretara ere joan izan naiz. Baina udaleko lana oso konplexua da, konplexuegia.

**Nolako agintaldia izan da eta zer nabarmenduko zenuke?**

Hasiera konplexua izan zen, koronabirusaren eraginez. Talde guztiak ohartu ginen esku bat bota behar zela, eta gauzak kontsentsuz egin ziren. Hala ere, udal antolaketa kritikatzeko modukoa da. Oso zaila da gu bezalako talde txiki batentzat, ordezkaritza gutxi dituen talde batentzat horrenbeste komisiotara joan behar izatea.

**Muga da ordezkaritza bakarra izatea? Zalantzarik gabe. Hauteskundeak eta gero, laguntza izatea espero dut. Lan hori bi edo hiru lagun artean errazago banatuko litzateke.**

**Terek zurekin jarraitzea nahi duzu, orduan.**

Noski. Niretzat oso garrantzitsua izango litzateke.

**Zer da Podemosek bereziki defendatu edo sustatu duena agintaldi honetan?**

Lau urte hauetan, eta datozen lau urteetan ere aukera badugu, zerbitzu publikoaren defentsa egingo dugu. Guretzat zerbitzu publikoen defentsa da garrantzitsuena. Udala zerbitzu publikoa da eta, gure ustez, externalizatuegi dago.

**Plenoetan, zuen argudioak entzuterako garaian, iruditzen zait oso lerratuta agertzen zaretela EH Bildurekin. Argudioen defentsan, xehetasunak bota ditut faltan.**

Kontutan hartu behar dugu EH Bilduren eta Podemosen argudioak horren ezberdinak ez direla. Desberdintasun handiena identitatearekin lotutako gaietan egongo litzateke. Udal politikan edo politika txikiago batean, ez dut uste horrenbesteko alderik dagoenik.

**Aurre kanpainan, Batzar Nagusietarako zuen hautagai Etxebeste Mimendi aldean izan zen. Hango balkoi batetik N1 errepideari begira zeundeten. Santa Krutz egunean ere, zarata eta kutsadura tarteko, Andoainera ere bisita egin zuen. Hori da zuen aldarrikapen nagusia?**

Konpondu beharreko aukeria da eta adostasun osoa behar duen irtenbidea eman behar zaio. Horren alde lan egingo dugu.

**Zein beste neurri edo ideia proposatuko dituzue Andoainarako?**

Herriko liburutegia behar dugu, eta eguneko zentro berri bat. Orain daukaguna, zaharra, deserosoa, txikia geratu da. Eskola publikoan inbertsio gehiago egitea ere oso garrantzitsua da. **Salto egin dezagun politika orokorrera, estatu mailako ezker mugimenduetan dagoen egoera bolkanikoa dela esango nuke. Esango zenidake zer den Sumar?**

Egia esan, neronek oraindik ere ez dakit. Ez dugu argi. Nahiko nuke ezkerreko alderdien benetakako fusio edo lotura izatea. Elkarrekin lan egiteko modu bat lortzen badugu, hobeto ibiliko gara.

**Andoain mugitzen zaretzen gehiengo Podemosekoak zarete?**

Bai. Gure zirkuluan hasieratik gauden gehiengo Podemoseko kideak gara.

**Kanpotik nabari den zarata handia eta gero, espazio politiko horretan lideratzen jarraitzeko gogo duzu?**

## Andoaingo Podemoseko zerrenda

1. Jose Maria Iparragirre.
2. Maria Teresa Santana.
3. Olga Hernandez.
4. Jose Ignacio Ibañez.
5. Maria Del Coro Barbero.
6. Raul Mendez.
7. Maria Romana Valeria.
8. Virginia Ayerbe.
9. Maria Luisa Roig.
10. Valeriano Hernandez.
11. Joseba Oteiza.
12. Maria del Socorro.
13. Maria Soledad Blanca.
14. Gabriel Rivero.
15. Guillermo Hernandez.
16. Rene Velazquez.
17. Marcos Alberdi.

Bai, proiektu honetan sinisten dut. Eta nahiz eta batzuk hilda gaudela esaten duten, espazio hau bizirik dago eta espazio honen beharra dagoela argi ikusten dugu.

**Ordezkaritza duten alderdi politikoaren legitimidadea zalantzan jartzen duten korranteak daude.**

Desafekzio hori gero eta nabariagoa dela iruditzen zait, eta, gazteen artean, oraindik eta gehiago. Horrek asko kezkatzen nau. Udal politika beraiek uste dutena baina askoz ere garrantzitsuagoa dela esango nioke jendeari. Erabaki oso garrantzitsuak hartzen dira udalean eta erabaki horiei legitimitatea kentzea arriskutsua da.

**Zergatik eman behar zaio botoa Pepe Iparragirre hautagaiari. Zergatik botoa eman Elkarrekin Podemosi?**

Botoa Elkarrekin Podemosek eskatuko nuke, ez Pepe Iparragirrerentzat. Teresa eta Olgaren esperientzia oso garrantzitsua da eta ordezkaritza handitzea gustatuko litzaidake. Ahal bada, ezkerreko gobernua lortzeko eta ezin bada, oposizioan jarraituko dugu besteen lana ikuskatuz.

**"UDAL ANTOLAKETA KRITIKATZEKO MODUKOA DA. OSO ZAILA DA TALDE TXIKI BATENTZAT"**

# "Bultzada berria behar du Andoainek, eta egokiena EH Bildu da"

**ANDONI ALVAREZ** ANDOAINGO EH BILDUKO ALKATEGAIA

Aurreko hauteskundeetako alderdi bozkatuena izan zen, eta zazpi zinegotzi eskuratu zituen. Gobernu taldeko kideekin kritiko, gobernu ardurak hartu nahi dituzte orain



Elkarrizketa osoa Aiurri.eus webgunean ikusgai dago. AIURRI

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN Andoainen jaio eta bizi, euskalgin-tzaren alorrean lanean aritu zara. Nagusiki, sorterrian. Zer da zuretzat Andoain, eta zer nabarmenduko zenuke?

Jaio nintzen herria da, eta nire inguru nagusia familia, lagunak bizi diren herria. Herri bizi bat, herrigintza oso indartsua duena. Arlo askotan, eta, batez ere, euskara eta kirol arloetatik, herrigintzaren bidez Andoain hobea egiten saiatu naiz, laburbilduz. Hori esan dezaket.

**Bigarren aldiz, alkategai. Zaila izan al zen halako emaitza ikusgarria lortu eta oposizioan aritzea?**

Bai. Inoiz zerrenda batek lortu zuen emaitzarik onena izan zen, eta Andoain gidatzeko itxaropena genuen. Erramun Ansa nire bizilaguna zen, eta berari gauza bera gertatu zitzaion 1979ko

hauteskundeetan. Orduan esaten zidan "ni ez nintzen izan, baina zu izango zara, ez dut uste alkatezta kenduko dizutenik". Gero denok dakigu zer gertatu zen.

**Zu izan zinen lehenengoa alkategai aurkezten. Bidean erabaki zenuen hori, ala erabakita zenuen 2019ko ekainetik?**

2019an, urrats hori eman nuen, eta, gure alderdiko joera ikusita, bi agintaldirako konpromisoa nuen buruan. Herritar askoren babesa jaso nuen 2019an, eta beste saiakera bat egin behar nuela sentitzen nuen.

**Nolako agintaldia izan dugula iruditzen zaizu?**

Entzun dugu azken asteetan, gobernukide baten ahotik, Andoain geldirik dagoela. Udalak bazituen erronka batzuk, estrategikoak. Eta horietako bat bera ere ez da burutu.

**"Andonik ez du kaña sartzen", edota "Bildu epel samar aritu da". Horrelako iritzien aurrean zer duzu esateko?**

Andonik izateko modua daukela, hitz egiteko joera eta argudioak emateko ekimena. Naturaltasunean sinesten dut. Denok ditugu geure ezaugarriak, alde onak eta ez hain onak. Udalean, plenotan, naizen bezala izaten saiatu naiz. Guk legegintzaldi honetan, beti hainbat bozerra maile izan ditugu eta gure kritikak beti politikoak izan dira. Kritika politikoa egiteko modua bakoitzaren ezaugarrien arabera da.

**Askotariko gaien bueltan, herritarrek gerturatu dira pleno aretora, eta, batzuetan, posizio suminduetatik mintzatu dira. Ekidin zitezkeela iruditzen al zaizu?**

Bi kasu datorzkit burura: C2a eta Etxeberrietakoa. Etxeberrie-

takoa ekidin zitezkeen. Batez ere jendeak informazioa zuzenean jaso beharrean, kanpotik jaso duelako.

**Aita Larramendi ikastolan, Bazkardoko eraikinean, ez dago lasto fardorik, ezta panelik ere. Ikasleek eta langileek zuzenean zarata, trafikoa, kutsadura jasan behar dute. Zer esan dezakezu horren aurrean?** Pantailak jartzeko eskaera Aita Larramendi ikastolak urte luzez egin du. 2017an, mozioa onartu zen, ikastola parean pantailak jartzeko.

Foru Aldundiak iragarri du jarriko dituela, baina C2aren ibilbidearen barnean. Ikastola ez dago ados eta gu haiekin gaude. Pantailak beharrezkoak dira, egungo eremuan, eta lehenbait lehen jartzen badituzte, hobe. Ezin ditugu pantailak erabili C2a legitimatzeko. Gai horretan, Aita Larramendi ikastolaren irizpidearekin bat egiten dugu.

**Politikan sakonduz, antipolitikarako joerak antzematen dira. Zein da zuk egiten duzun hausnarketa?**

Bi atal bereziko nituzke. Batetik abstentziora jotzen dutenak, eta errespetagarria da hori. Eta bestea, mugimendu ezberdinak abstenituz joera hori sustatu nahi dutenak. Kezkaz bizi dut bigarren hori. Zeren eta diskurtso orokor horiek, "alderdi guztiak berdina zarete" esatera datorzkigunak, kezkagarriak dira. Ezin dira guztiak zaku berean sartu, denek ez daukate bere ibilbidea. Erakunde guztien eraginkortasuna ere ezin da orokortu. Azken lau urtetan, udalgintzan aritu naiz. Banekien, baina bertatik bertara ikusi dut udalean zenbat erabaki hartzen diren, herritarrei zuzenean eragiten dietenak.

**Zuen alderdian zentratuta, oso egituratuta zaudeten irudia ematen duzue. Udal ordezkarien taldeak gain, mahai politikoa duzue.**

Eta baditugu beste azpi atal batzuk ere. Hirigintzaz arduratzen den batzordea martxan dugu, eta komunikazioaz arduratzen den beste bat ere, beti ere esku bat botatzen diguten pertsona gehiagorekin batera. Gure indarra hor dago. Esti Mujikak, Jon Zuluetak, Maite Etxeberriak eta Julian Lopezek zinegotzi kargua utziko dute, baina lan-taldean sartuko dira. Etengabe, indartuz doa taldea. Gure indargune nagusia hor dago.

## Andoaingo EH Bilduko zerrenda

1. Andoni Alvarez.
  2. Marta Lasa.
  3. Xabier Fondon.
  4. Garazi Usandizaga.
  5. Jesus Javier Mateo.
  6. Haizea Barandiaran.
  7. Diego Barrasa.
  8. Larratiz Arriola.
  9. Aitor Iburguren.
  10. Miren Maite Ansa.
  11. Estebe Lopez Munain.
  12. Kontxi Arratibel Buenetxea.
  13. Pello Oria.
  14. Izaskun Beraza.
  15. Roge Miguez.
  16. Uxune Tena.
  17. Juan Jose Arregi.
- Ordezkoak
1. Miren Dominguez.
  2. Asier Aranburu.
  3. Inma Laskibar.

**Zergatik eman behar diote botoa zuri? Zure hautagaitza defendatzeko tartea.**

Lehen aipatu dut. Udal-gobernuko kide den EAJko alkategaiak esan du Andoain geldirik dago eta bultzada behar duela. Andoain herri bizia da. Kultur, kirol elkartek mordera dago eta astebururo izugarritzko lana egiten dute. Geldirik egon dena, azken lau urteotan Udala izan da. Eta Udalak erakunde modura bultzada behar du. Hori ez da etorriko egun gobernukide diren PSE-EE eta EAJ-PNV alderdien eskutik. Aldaketarako bermea EH Bildu da. Badugu aurreko legaldietako esperientzia, herritarrekin batera norabide horretan elkarlanean joango dena. EH Bildu jende prestuaz osatuta dago. Balio eta jatorri desberdineko jende osatutako taldea da gurea. Zinegotzien atzetik talde indartsua dator. Andoain herriak bultzada berria behar du, eta, horretarako, egokiena EH Bildu da.

**"UDALAK BEHAR DUEN BULTZADA EZ DA PSE-EE ETA EAJ-PNV ALDERDIEN ESKUTIK IRITSIKO"**



# "Ezin dugu jarraitu erdizka aurrera egiten, Andoainen"

IMANOL GOENAGA ANDOAIN EAJ-PNV ALDERDIKO ALKATEGAIA

Hautagaitza berri bakarria berea dela dio hautagai jeltzaleak. Gobernukide den alkatearen kritiko ageri da, eta baita iraganean alkatetza izan duen EH Bildurekin ere



Elkarrizketa osoa Aiurri.eus webgunean ikusgai dago. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

**Kanpainan aurrez aurre, kalean, sarean... Gogotsu ikusten zaitugu.**

Bai. Gogoz, ilusioz eta energia askorekin nago. Ezagutzen nautenek badakite, oro har, egiten dudana edozer gauzetan pasio eta energia asko jartzen dudala. Erronka hau potoloa dela uste dut, merezi duela, eta denbora luzean prestatzeko aukera izan dugula. Herri bat maitatzen duenarentzat bere herriko alkatetzara aurkeztea erronka oso garrantzitsua da.

**Zer behar da horrelako ardua bat hartzeko?**

Herri bat gidatzeko ezinbestekotzat dut herria ezagutzea eta herri hori ezagututa, herria maitatzea. Baita herriak dituen gabeziak, erronkak, arazoak identifikatzea eta irakurketa zorrotzena egitea ere. Irakurketa horren arabera konponbideak

proposatu ditzazkezu, beste batzuen artean.

**Zein da maiatzaren 28ra begira duzun ambizioa, lorgarria da irabaztea ez bada ere, bigarren alderdia izatea?**

Irabaztera goaz. Zertarako? Andoainen gauzak aldatzeko. Benetan gauzak aldatu daitezkeela pentsatzen dugulako. Urte asko daramatzagu borroka batean trabatuta. Lau urtetik lau urtera alkate ezberdinak izan ditugu, baina nire ustez estrategia falta nabarmena eduki dugu, lidergo baten falta. Beraz, alkatetza eskuratzeko aurkezten naiz, bokazio horrekin.

**Gobernu taldean egotea eta, hala ere, lidergotza falta dagoela esatea bateragarria al da?**

EAJk, alderdi batekin edo bestearekin baino, herriarekin du konpromisoa. Andoainenek atzera ez egiteko eta egoera, nolabait,

desblokeatzeko. Alkatea oso fitzura garrantzitsua da herriko politikak bideratzerakoan. Sarritan, Maider Lainezen figurak, guk nahi baino gehiago, baldintzatu gaitu. Ezin dugu aurrera egin, ezin dugu berdin jarraitu, alegia, erdizka aurrera egiten ezin dugu jarraitu. Hortaz, alkatetza guk eskuratzea da alternatiba, herriari benetako bultzada emateko. % 50ean joan beharrean, %100 ean joateko.

**Martxoaren 2an adierazi zenuen Andoain grisa dela eta koloretako Andoain eraiki nahi duzula. Pentsatzen dugu politikoki ari zarela, baina norbaitek txarrera uler dezake hori. Andoain herriaz eta gizarte bizitzaz zer da gogokoen duzuna?**

Andoain bizi dut eta Imanol Goenagaren zati handi bat Andoain da. Andoainen jaio naiz, Andoainen hazi naiz, hezi naiz, bizi naiz.

Pertsona oso aktiboa izan naiz, Andoaingo bizitzan oso errotua egon dena. Horiek horrela, aukerak sortzen dituen herri bat nahi dut. Ikusi ditut nire inguruko herritarrak herritik ihes egin dutenak aukera hobeen bila. Norbait Andoainera bizitzera gerturatzen bada, aukerak izan ditzala nahi dut, herri erakargarria izatea. Horregatik, koloretako Andoain izatea nahi dut, aukerak eskaintzen dituen herri bat.

**C2aren auzian, maila pertsonalean asko sufritu duzue.**

Sufritu baino gehiago, nire ustez, ez da eztabaida zintzo bat eman. Nolabait alderdi ezberdinen gabeziak eta karentziak estali nahi izan dituztela sumatu dugu. Karentziak eta gabeziak estaltzeko zarata horiek, beste batzuen ahotsa estali dutela pentsatzen dut. EAJ-PNVk bere posizioa argi eta garbi eduki du, hasieratik eta aurrerantzean ere hala egiten jarraituko dugu.

**Afera honetan deigarriak egin zaizkit jeltzaleen hainbat adierazpen. Ikasturte honetan, udazkenean pilpilean zegoen C2aren gaia. Batzar Nagusietako plenoan, zuen alderdiko Maria Eugenia Agirrezabalagak adierazitakoa irakurriko dut: "Foru Aldundia lantzen ari den proiektua ona -onena- eta egokia da errepidearen trafikoaren arazoak konpontzeko. Eta ona -onena-, baita andoaindarrentzat ere". Ez zaizu iruditzen horrelako adierazpenak boomerang modukoak direla? Alegia, kalte gehiago egiten diola hori adierazi duenari? Kasu honetan, EAJ-PNVri?**

Gertutik jarraitu nuen pleno hori eta Andoainek izan zezakeen proiektu onena dela zioen. Hitz horiek berretsiko nituzke, eta orain azalduko dizut zergatik: erakunde bateko teknikari, langile eta ingeniari guztiak ari da buru-belarri dagoeneko lanean, proposamen onena sortzeko. Beraz, aurrerapausoak ematen ari dira Andoaini eskaini dakioken proiekturik onena egiteko. Are gehiago esango nuke: dagoen proiektu bakarria da. C2-aren kontra elkartu dira ezberdin asko Plataforman, baina, momentuz, mahai gainean dagoen egitasmo bakarria C2a da, Foru Aldundiak sustatua.

Guztiok ezagutzen dugu elkar herri honetan. Bada, EAJ-k ibilbide bat dauka, eta herri honen garapenerako erabaki estrategiko guztietan asmatu dugu.

## Andoaingo EAJ-PNVko zerrenda

1. Imanol Goenaga.
  2. Idoia Mikelez.
  3. Joseba Poza.
  4. Sagrario Ruiz.
  5. Andoni Baltasar.
  6. Mikel Urdangarin.
  7. Garbiñe Guedejo.
  8. Iñaki San Buenaventura.
  9. Juana Ikutza.
  10. Alexander Huitzi.
  11. Mertxe Perez.
  12. Iñaki Irulegi.
  13. Agurtzane Irigoras.
  14. Ramon Carrera.
  15. Elena Eizagirre.
  16. Ainhoa Elola.
  17. Txiki Rodriguez.
- Ordezkoak
1. Maria Jose Izagirre.
  2. Aritz Amondarain.
  3. Elisabet Ezenarro.

**440 aparkaleku iragarri dituzue.**

Andoaingo lur-eremu batzuetan, azterketa egin dugu, gutxieneko aparkaleku-kopurua zehazteko. Estimazioak zenbakietara eramanda, 440 aparkaleku egiteko aukera da emaitza. Non? Anbulategi zaharreko gunean, Arrate plazan, Leizaur parke azpian, Zumea plazaren atzean... Programan, xehetasunetan sartzen ahalegindu gara gu.

**Zergatik eman behar zaio botoa EAJ-PNVri?**

Ez diot inori Imanolentzako bozka eskatuko, Andoainen aldekoa baizik. Urte asko darabagu borroka batean trabatuta, ezker abertzalearen eta PSOEren arteko muturreko aldatetekin. Aldatzeko garaia da. Horretarako, lidergo eta proiektu sendoak behar ditugu. EAJk programa zehatza luzatu dio Andoaingo herriari, eta lan-talde irabazlea dauka. Beraz, benetako aldaketa nahi duten andoaindar guztiei esan nahi diet EAJ dela hautek-sundeetan aukezten den aukera berri bakarria.

**"ANDOAINGO ALKATETZA ESKURATZEKO AURKEZTEN NAIZ, BOKAZIO HORREKIN"**

# "Alkatetzan egon nahi dugu, andoaindarren bizi kalitatea hobetzeko"

**MAIDER LAINEZ** ANDOAINGO PSE-EE-KO ALKATEGAIA

Alkate lanetan aritu da, azken agintaldian. Eskarmentua badu, aurreko hiru agintaldietan zinegotzi izan delako



Elkarrizketa osoa Aiurri.eus webgunean ikusgai dago. AIURRI

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

**Nola doa kanpaina? "Aurrera egin jarraitzeko", horixe da zuen lema.**

Oso harro gaude, lau urte haueztaz, bihotza osoa jarri dugu. Andoaindarren bizi kalitatea hobetzen saiatzen, eta beren interesak defendatzen. Etxeko lanak eginak ditugula esan daiteke, eta orain lau urte baino hobeto gaudela esango nuke.

**Auzoetan ibili zerate, zer nolako harrera jaso duzue? Zeintzu dira herritarren kezak?**

Sozialistentzat oso garrantzitsua da herritarren ideiak jasotzea, programarekin hasi aurreitk. Gure kasuan ia zortzi larunbatetan jarraian aritu ginen herritarrekin. Denek ez dute pentsatzen guk bezala, eta aberasgarria izan da, entzute aktiboa

egiteko gaude. Alkatetzan nagoenetik, hori izan da gehien gustatu zaidana.

**Zer da Andoain herriaz gogokoena duzuna?**

Andoaindar izatea harro egoteko modukoa da. Herri oso bizia gara, eta solidarioa. Azken urteotan pasa dugunarekin oso garbi erakutsi dugu hori guztia. Herriarren aldetik guri laguntzeko gertutasuna sentitu izan dugu, eta oso garrantzitsua da hori.

**2015, 2019 eta 2023an alkategai aurkeztu zara. Zein aurreikuspen egiten duzu?**

Oso lasai nago, gure aldetik etxeko lanak eginda daude, bihotza eta pasioa jarri dugu. Oso langileak izan gara. Gure aldizkaria banatu genuenean, 140tik gora arrazoi eman diz-

kiegu herritarrei gutaz fidatzeko.

**Zuen gobernukideak dio ez aurrera, ez atzera dabilela Andoain. Gobernukidearen aldetik hori entzutean, zer pasatzen zaizu burutik?**

Lehenago astean esan zuten ez aurrera, ez atzera genbiltzala. Bigarren astean erdizka goazela, bada, kontuan hartuta aste bete falta zaigula, espero dugu datorren astean Andoainek aurrera egin duela adieraziko dutela. Txantxetan ari naiz. Gure aldetik, intentzioa eta ahalegina hortxe daude. Zerbitzuak eskaini eta programak martxan jarri ditugu. Eta bakoitzak jakingo du zer egin duen. Sozialisten etxean oso harro eta lasai gaude, egindako lanarekin.

**Zuek, behintzat, agintaldian zehar esan duzue balorazio ona egiten dezuela.**

Guretzat aberasgarria izan da, badakigu alderdi desberdinak garela, eta ez dugula iritzi berdina izaten. Esate batera, begibistakoa da C2aren inguruan iritzi kontrajarriak ditugula. Baina ahalmena izan dugu gobernu programa adosteko, herritarren bizi kalitatea hobetzeko.

**Legealdiak bi zati izan ditu. Egingdakotik zer nabarmenduko zenuke?**

Pandemian pertsonengan jarri genuen fokoa, eta alde horretatik adineko jendeari begira bakardea ekiditea eta programak martxan jartzea lehentasuna izan zen.

Bestetik, argi genuen haurren eta nerabeengan partaidetza sustatzea garrantzitsua zela, eta Tratu On planaren bitartez lortu genuen partaidetza mahaia osatzea. Aniztasunerako plana ere martxan jarri dugu.

**Zuen programan beste estilo bat nabari da. Egitasmo zehatzak baino gehiago, ideiak azaldu dituzue.**

Bietatik dago, batzuk orokorrak direnak, esate baterako, adineko jendearengana gerturatzea. Baina zaintza arloan neurri zehatzak jarri ditugu. Gure ideiak edo proposamenak bost ildo estrategikoetan antolatuta daude.

**Plenoetan, maiz, kargu hartzera joan zaizkizue herritarrek. Gogorra egin zaizu, asko sufritzen da?**

Pertsonak gara, beste guztiak bezala. Niretzako, hainbat pleno gogorrak izan ziren. Baina gogoratzen dut gogorra izan zela, pandemiaren hasieran oposiziotik laguntza gehiago izatea espero genuelako. Pertsonalki, minduta atera nintzen. Ahalik eta hoberen saiatu ginelako gauzak egiten.

**Agintaldi honetan, zuen lansailetik bultzatuta, haurren hiri laguna ekimenean murgildu zarete UNICEFekin elkarlanean. Ohar batean esaten da "haurren eskubideak tokiko politiken erdigunean jartzen" direla. Maiatzean eta ekainean ikastolako dozenaka langile eta ehunka ume egongo dira N1 ondoan, babes neurririk gabe. Ikastolako lasto fardeoz ari naiz. Haur horien eskubideak urratzen ari badira, zarata eta kutsaduraren aldetik, udalak zer aktibatu beharko luke? Hain justu, horrexegatik zen oso garrantzitsua pantaila akus-**

## Andoaingo PSE-EEko zerrenda

1. Maider Lainez.
2. Jose Luis Verdasco.
3. Ascen Parron.
4. Aritz Alcain.
5. Maria Belen Moreno.
6. Jose Antonio Fernandez.
7. Mercedes Luis.
8. Daniel Garcia.
9. Aintzane Diez.
10. Oscar Mendo.
11. Raquel Caballero.
12. Jose Francisco Muñoz.
13. Luisa Fuentes.
14. Jose Ignacio Apestegi.
15. M.Almudena Lamaza.
16. Francisca De La Calle.
17. Estanis Amuchastegui.

tikoak Andoainera ekartzea. Aldundiari egin genion eskaera, nahiz eta trazatua oraindik gauzatzeko urteak pasako diren. Ezin dena da, bitartean, inongo babes neurririk gabe egotea.

**Politikaren aurkako korrontek badaude. Zein iritzi duzu?**

Korrontea dagoela begi bistan dago, baina guri dagokigu Udalean lan egitea. Guretzat gertutasun handikoa da udala. Guretzat oso garrantzitsua da bizi kalitatea hobetzea.

**Zergatik eman behar zaizue botoa, maiatzaren 28an?**

Esan nahi dut andoaindarra izateaz oso harro nagoela. Herri bizia, solidarioa, anitza eta berdinzalea gara. Horrexegatik lau urteotan saiatu naiz Andoaingo herriaren izena eremu eta leku guztietara bideratzen. Azken lau urteak gogorrak izan arren, elkarrekin lortu dugu Andoainek aurrera egitea, eta haztea. Esker oneko hitzak bakarrik dauzkatz.

Sozialistok alkatetzan egon nahi dugu, hain zuzen ere, bizi kalitatea hobetzeko eta andoaindarren interesak defendatzeko. Andoain gure lehentasuna da.

**"GURE IDEIAK ETA PROPOSAMENAK BOST ILDO ESTRATEGIKOETAN ANTOLATUTA DAUDE"**



# "Partido Popularrekoak jendearengandik gertu egon gara, beti"

**MARIA GARRAPIZ ANDOAINGO PP ALDERDIKO ALKATEGAIA**

Donostiarra, aseguru-etxe batean egiten du lan. Alderdiko militante aktiboa da, eta pozarren hartu du Andoaingo zerrendaburu izateko luzatu dioten eskaintza

**Jon Ander Ubeda** DONOSTIA

**Zein da zure aldartea kanpaina amaitzeko egun gutxiren faltan?**

Animoz beterik nago, jendearengandik gertu egotea gogoko dudalako. Funtsezkoa iruditu zait hori, betidanik. 32 urte ditut, eta 16 urte nituenetik PPN mugilduta nago. Lana dela medio, alde batera utzi behar izan nuen aldi baterako politika. Baina, erabat, ez naiz inoiz desagertu. Andoaingo hautagaitza proposatu zidaten, eta ilusioz heldu diot erronkari. Jende asko eza gutzen dut, Aita Larramendiko guraso asko. Haiekin behin baino gehiagotan egonda nago, hurrekin jolasean. Esperientzia horien bitartez, beren beharrak zeintzuk diren antzeman ditut. **Beraz, Andoaingo ezagutza baduzu. Zein da, zure ustez, udalerririk dituen arazo handienak?**

Biziki kezkatzen nau N1 errepideak. Sutan nauka gaiak. Ikastolaren ondoan gaizki jarritako panel moduko horiekin, hurrekin ezin dute horrela ikasturtea amaitu. Ikasturte amaierako argazkia hori izatea... Ez dut ikusi nahi.

Udalerririk mailako arazoa da. Zaratarekin ezin baduzu lorik



Easo kaleko egoitzan egin zen elkarrizketa. AIURRI

egin, udalerririk nabarmen mugatuko badizute A15eko trafikoa N1 errepidetik sartuz: sekulako arazoaren aurrean gaude.

**Harritzen al zaitu Gipuzkoako Foru Aldundiak gauzatu nahi duen C2 delako egitasmoa?**

Harritzen nau. Ez dut ulertzen, gainera. Zein behar dugu udalerririk bat horrela zigortzeko? Udalerririk erdia aurka daukate.

**Ez da zure iritzia soilik, PP alderdian.** Halaxe da. Batzar Nagusietan bat gatoz ideia honekin. Azken finean, logikaren ildo da.

**Tokiko merkataritzarekiko kezka agertu zenuen, Andoaingen egin zenuen aurkezpenean.**

Kezkaz bizi dugu, dendariak halabeharrez eta beren gogoaren kontra negoziario itxi behar izan dutelako. Estu ikusten ditugu hainbat merkataririk, eta normala da. Segurtasun falta ere nabarmena da, lapurretak nabarmen handitu direlako. Lasaitasunez oheratzea garrantzitsua da, biharramunean lasaitasun berarekin esnatuko zarela jakinda.

**200 boto inguru jaso izan dituzue, azken agintaldietan.**

Bai, eta inkestei ez diet jaramon handirik egiten. Fisikoki ez nago beti Andoaingen, baina, telefonoz, gurasoekin hitz egiten dut eta egun osoa han bizi direnekin. Zuzeneko harremana dut.

**Zein ekarpen egiten dizute?**

*Vox populi* omen da ibilgailu elektrikoaren kargarako puntu gehiagoren beharra. Zeren eta amalurra pikutara doan garaioan, puntu elektriko horien beharra dugu Gipuzkoa berde hori izaten jarrai dezagun.

Eta, bestalde, Belabi kaleko aparkalekuaren egoera kaskarrarekin kexu dira bizilagun asko. Lehengoan izan nintzen han, eta txundigarria iruditu zitzaidan. Hirugarren mundukoa.

## Andoaingo PPko hauteszerrenda

1. Maria Garrapiz.
2. Teodoro Pastor.
3. Gustavo Blanco.
4. Maria Pilar Gracia.
5. Alfonso Santibañez.
6. Cesar Fraile.
7. Jesus Camara.
8. Belen Pastor.
9. Ana Belen Garcia.
10. Rafael Valdenebro.
11. Julia Sintes.
12. Ainhoa Jañez.
13. Laura Gutierrez.
14. Luis Garcia.
15. Manuel Jimenez.
16. Maria Elena Castaño.
17. Gabriel Mato.

Andoaingen herriak ez du igerileku irekia. Nola da posible hori, 14.000 biztanleko herri batean? Ez da normala. Eta igerileku itxiko ura izoztuta badago, horrek ez die haurrei igeriketara trebatzeko laguntzen.


**Botoa emateko zalantza dauden andoaindarrei zer esango zenieke?**

Alderdi popularra osatzen dugun kideongan konfiantza izan dezatela. Jendearengandik gertu egon garelako beti. Entzuketa aktiboa egiten dut, eta guztiak entzuteko prest nago.

**"C2-AREN HARIRA, ZEIN BEHAR DUGU UDALERRI BAT HORRELA ZIGORTZEKO?"**



## Hautagaien elkarrizketak



**AIURRI.EUS | ANDOAIN, URNIETA**



## NIRE USTEZ

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

**Laster amaituko da sufrikarioa**

Emozioen karrusela abiada bizian da udal hautagaiantzat. Bistan dute, dagoeneko, zirimola erotik jaisteko unea. Hortxe dago maiatzaren 28a, Andoaingo hautesle bakoitzaren boto sekretuarekin eraikitzen den misterioa argituko den eguna. Euforiko, burumakur, zalantzati, itxaropentsu, baikor, ezkor... Karruselean gora eta behera, sentsazioak bata bestearengandik ordezkatzeko dira.

EH Bilduk kanpaina indartsua egin du. Jendea erakartzeko gaitasuna duela erakutsiz, beste behin. Kalek kale eta askotariko ekitaldietan sendo ageri dira. Jakin, badakite irabazteko aukera asko dituztela. Baina, Andoaingo kasuan, erronka ez da irabaztea. Langa goi-goian dago. Gehiengoa eskuekin

ukitu beharko lukete, boterea eskuratu ahal izateko. Udalerrian auzi ezberdinekin talka sortu da. EH Bildu hortik hazi daiteke, suminduen multzo horretatik. Zeren eta dagoeneko babes zabala jasotzen ari dira azken hauteskundeetan.

PSE-EE 2019ko hauteskunde kanpaina errepikatzen ari dela dirudi. Eta horrek harritzen nau, 2019an oposizioan zegoelako. Alkatetzan egonda, ekitaldiak eta parte hartzea biderkatuko zutela espero nuen. Etengabeko presentziak, halere, ez du zertan arrakasta handiago bermatzen. 2019an, beste alderdien kanpaina handia egin gabe, bi mila boto eskuratzear izan ziren. Alkate izateak fokuan jarri du Lainez, lau urte hauetan. Herritarrek euren kudeaketa

saritzen edo zigortzen duten, igandean jakingo da.

Sozialistek eta jeltzaleek badute, EAEko hitzarmenaren arabera, EH Bilduk ez duen aldagai bat. Biak ala biak, hauteskundeak irabazi gabe, aginte-makilaren jabe egin daitezkeela.

EAJ-PNV alderdiaren anbizioa hori da. Sozialistak gainditu eta bigarren postutik alkatetza eskuratzeko amesten dute. Soziologikoki, sozialismoak indar handia izan du Andoainean. Eta, gehien-gehienetan, jeltzaleek baino babes handiagoa jaso dute. Goenagak hautagai berri bakartzat hartzen du bere burua, eta botoetan eta zinegotzi-kopuruan gora egin nahi du. Horretarako, sozialistek jaitsiera nabarmena pairatu beharko lukete. Eta bada galdera bat, airean:

C2aren aferak zenbateraino zigortuko ditu jeltzaleen asmoak? Hori ere igandean argituko da.

Udal ordezkari bakarra duen Elkarrekin Podemos kanpaina apalagoa ekiten ari da. Presentzia gutxi izaten ari dira. Botoetan gorantz egitea espero dute, baina duten ordezkari eustea ez litzateke eurentzat sari kaskarra izango. Kontuan izanik espazio horretan dauden etengabeko xextrak, irautea irabaztea da.

**Haurren aurrean, helduak heldu**  
Topagunearen esaldi hori politikara ekarri behar dugu. Gertaera tamalgarria bizi izan genuen, astearen hasieran, Twitterren. Haurren irudi-sorta, kultur aniztasuna ardatz zuten ekitaldia eta kanpainan lehiakide duen hautagaiari



kritika. Hori guztia ageri zen sozialisten txio batean. Guraso asko, publikoki nahiz pribatuan, asaldatu ziren. PSE-EEK atzera egin eta txioa ezabatu zuen. Badira tentuz ibili beharreko eremuak. Haurren aurrean, helduak heldu agertu behar dugu. Egunerokoan, alor ezberdinetan, eta baita politikan ere. Ikasi ote dugu, hurrengoetarako?

**Aurrera, batera!**  
**Andoaingo**

**IMANOL GOENAGA EGIBAR**  
Andoaingo alkatetzarako hautagaitza

**EIDER MENDOZA LARRAÑAGA**  
Gipuzkoako diputatu nagusireko hautagaitza

EAJ-PNV

Berkatu

EEJ-OTIVELUS

# "Alderdi politiko guztiak berdinak direla esatea, definizio gisa, egokia da"

**BURUJABETZA ANDOAIN** HAUTESKUNDEETATIK KANPO GERATU DEN TALDEA Sinadura bilketari ekin zioten apirilean, eta, behin behineko onarpena jaso bazuten ere, azkenean Andoaingo Udal hauteskundeetan aurkeztu ezinik geratu dira

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Burujabetza izeneko hautagaitzerrenda aurkeztu zuten Andoainen, baina Tolosaldeko Hauteskunde Batzordeak atzera bota zuen. Taldean erantzun dituzte galderak.

**Zer moduz joan zen sinadurak bilzeko kanpaina?**

Horrelako antolatzea oso zaila da; izan ere, joan-etorriak modu altruistan koordinatu behar dituzten kolektiboak elkartu behar dira, ordutegietara egokitu, bilera-denborak arindu... Kasu honetan, hauteskundepeak hain dira astungarriak, hainbestearino murriztuta daude, zeinean galdera sortzen den: sinadurak abal gisa bildu behar badira, zergatik ez da ematen denbora-epe zabalagoa, Andoaingo edozein bizilaguni sarbidea errazteko?

**Zergatik baztertu zen hautagaitza?**

NANaren fotokopia bat aurkeztu behar zen sinadurarekin batera, abal gisa. Ez du balio sinatzaileak erroldan egotea; NANaren fotokopia behar dugu gainera. Inola ere ez da erraztu baldintza hori. Gaitzespen handia eragiten du arau horrek, eta egiazki, bizilagun askok adierazi zuten izapide horrek mesfi-



Burujabetza Andoain sortzeko sinadura kanpainari ekin ziotenean. AIURRI

dantza sortzen ziela, eta hori oso ulergarria da. Arau horri aurreko denbora-epea gehitzen badiogu, bi puntu negatibo dira jada, talde berri baten sorrera zailtzeko.

**llegalizazio-prozesuetan herri-plataformak sortu izan dira Euskal Herrian. Zergatik ez baliatu eskarmentu horretaz?**

Ezin dira alderatu hain desberdinak diren bi garai, batez ere, orain, sistema politikoaren sinesgarritasuna oso zalantzan dagoelako eta informazio-iturri

ofizialen egiazkotasuna, are gehiago.

**Zein profileko pertsonak osatu dute zerrenda?**

Gehienek erakunde publikoek benetan nola funtzionatzen duten eta urteetako esperientzia ezagutzen dute, eta ohartuta daude ez dagoela hobetzeko aukerarik. Horiek badakite gure erakundeek okerrera egiten dutela egunez egun, herritarren askatasunak murriztuz, zergak igoz, familia-negozioak ixten ari direla, aisialdia babestuz eta

herri osoari berdin mesede egiten dion kulturaren benetako balioa galduz, natura, zuhaitzak eta ibaiak mesprextatuz eta animalien eskubideak inmoralak diren muturretaraino gutxietsiz, diru publikoa gardentasunik eta herritarren kontrolrik gabe kudeatuz eta politika fede-ekintza bihurtuz, erlijioa balitz bezala, non sinetsi behar dugun jaun batzuek hitzez esaten dutelako. **Behar adina boto jasoz gero, prest al zeundeten udal-karguak hartze-ko?**

Ez, ez genuke onartuko udal-dinamika, eta kargua herriaren tresna bihurtuko genuke erakunde sartzeko, udalerriko edozein informazio eskuratzeko benetako gardentasuna lortzeko. Kargua, publikoa denez, aukera eman beharko luke gaur egun eskuragarri ez dagoen informazio guztia eskuratzeko. Esaten dutena esaten dutela, edonor dagoela ere, udalak IFK batekin kudeatzen dira, eta, enpresa gisa bideragarriak izan behar dute alderdiaren interesak betetzeko, beren akordio eta isiltasun konplizeekin batera, egungo arazo larriari entzungor eginez.

**Bat al zatoz maiz entzuten den leloarekin, politikari guztiak berdinak direla esatean?**

Denak berdinak direla esatea, alderdi politikoei definizio gisa aplikatuta, oso egokia da, eta funtzionamendu berdina eta frogagarria definitzen du, non guztiak agenda bera betetzen duten agresibitate edo diplomazia handiagorekin edo txikiagoarekin. Gaur egun, sinesgarritasunik eza guztiak antza izatearen ondorio da: ustelkeriakasuak, zigorrak, gezurra...

Politikatik bizi diren pertsonen kasuan, denak ez dira berdinak, baina, alderdi politiko baten barruan, benetako alda-

ketak egiteko gaitasuna ia hutsaren hurrengoa da. Aldaketa estetikoak dira, eta denborarekin perbertitu eta deuseztatu egiten dira.

**Ez duzue sinesten alderdi politikoetan, ez politikarietan, ez partitokrazian. Baina zuetako batzuk aurreko legegintzaldietan aurkeztu izan zarete alderdien pean.**

Duela urte batzuk, oraindik uste zen barrutik aldaketak egiteko aukera zegoela, eta talde alternatiboekin lotutako pertsona askok parte hartu zuten. Egun, askok kolaborazioak eta bilerak egiten dituzte talde politikoekin, baina duela urte batzuetako esperientziek beste era batera jardutera eraman gaituzte. Berririo gogorarazi digute lehengo politikak ez duela oraingoaren antzik, eta legez kanpoko konfinamendu bat bizi izan ondoren, tarte handia ematen duela pentsatzeko zerbitzu juridikoez ez dutela gu defendatzeko gaitasunik, eta krisi politiko-sanitarioko urte hauetan irabazten atera dela.

**Antzinako demokrazia berreskuratzea eta batzarren bidez autoantolatzea proposatzen duzue.**

Erreferentzia eta hemeroteca ugari daude udalerrien kudeaketa eta bizilagunen arteko bizikidetzeta nola lantzen ziren azaltzen digutenak, eta argi dago batzuek ezjakintasunagatik, beste batzuek engainatzeagatik eta beste batzuek beren boterea eta interes ekonomikoak, politikoak eta erlijiosoak mantentzeagatik historia ezkutatu dutela, mantentzea ezinezkoa den puntu honetara iristeko. Batzuk jada existitzen dira, eta funtzionatzen ari dira, eta gero eta gehiago sortuko dira herritarrek jakin ahala aukera bakarra direla demokrazia mozorrotutako diktadura saihesteko.

## GORA ETA BEHERA

### Propaganda zabaltzeko panelen egoera tamalgarria



Ikastetxeen kanpoaldean jarritako xafla horiek zabortegean behar lukete. Zikin, oker daude. Paisaia nabarmen zatartu dute. Xafla berriak beharko dira hurrengo deialdietarako, eta ondoren xafla horiek hezetasunik gabeko gune batean gorde. Datorren udaberriari dira Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak. Ordurako berriro beharko dira panel horiek, gehien gehieneko egoera tamalgarria baita.





## Batzar Nagusiak, beste hauteskundeak

Bi hautes-ontzi izango dira aukeran, igande honetan. Udal hauteskondeez gain, Batzar Nagusietakoak ere ospatzen direlako. Andoaindik lau hautagai nagusiak igaro dira, egun hauetan. EH Bilduk mitina antolatu zuen Kontzejupean, astelehen honetan. Ehundik gora lagun elkartu zen eta Maddalen Iriartek eta Andoni Alvarezek eskualdeari eta Gipuzkoari hainbat aipamen egin zizkioten. Biharamunean, Eider Mendoza EAJ-PNVko hautagaia Andoainera hurbildu zen. Imanol Goenaga eta Andoaingo hautagaiak alboan zituela, hedabideentzat adierazpenak egin zituen. Jose Ignacio Asensio PSE-EEko hautagaia Maider Lainezen ekitaldi nagusira hurbildu zen, aurreko ostiralean. Eta kanpaina hasi aurretik, Elkarrekin Podemoseko hautagaia den Miren Echeveste birritan izan da Andoainen.



AIURRI



AIURRI



AIURRI



ELKARREKINPODEMOS

#ANDOAIN #UDALHAUTESKUNDEAK23

# AIURRI.EUS WEBGUNEAN

ANDOAINGO UDALETXEAN ORDEZKARITZA DUTEN 4 HAUTAGAI EKIN

Andoni Alvarez  
EH Bildu



Pepe Iparragirre  
Elkarrekin-Podemos



Maider Lainez  
PSE-EE



Imanol Goenaga  
EAJ-PNV



ELKARRIZKETAK [WWW.AIURRI.EUS](http://WWW.AIURRI.EUS) WEBGUNEAN IKUSGAI



# “Taldearen lanari esker lortu dugu igoera”

**PABLO DE TORRES** PREFERENTE MAILAKO ENTRENATZAILEA

Denboraldia amaituta, Preferente mailara igotzea lortu zuen, joan den asteburuan, Urnieta Kirol Elkartek, Landetxari 0-3 irabazi ostean

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

Talde-izaera indartsu mantentzea izan du oinarri Urnieta Kirol Elkarteko Lehen Erregional mailan, denboraldi honetan. Hala, konstantziak bere fruituak eman ditu: Preferente mailara igo da. Pablo de Torres urnietarra da taldearen gidari.

**Preferente mailara itzuli da Urnieta Kirol Elkartea. Zein sentsazio ditu taldeak asteburu zirrargarri baten ondoren?**

Denboraldi hasieran ezarritako helburua lortu izana da sentsazio nagusia. Igoera lortuko zuen talde bat eraikitzea zen xedea, eta taldea osatzen dugun guztion lanari, sakrifizioari eta konpromisoari esker lortu da hori.

**0-3 irabazi zenieten aurkari zuzenei, Landetxari. Partida zorrotza izan al zen? Zaila izan al zen igoeraren presioari neurrria hartzea?**

Lehen zatia oso parekatua izan zen, ez baitzuen bata bestea menderatu. 45. minutuan, atsedendira iritsi aurretik, gure jokalarietako bat kanporatu zuten, eta 10 jokalarirekin geratu ginen bigarren zati osariko. Atsedendaldian, taldea berarrantolatu genuen, bat gutxiagorekin irabazi ahal izateko partida. Taldekide guztien inplikazioa ikaragarria izan zen, lan fisiko handiarekin, jokalarri baten falta ordezkatu behar baitzen. 67. minutuan etorri zen lehen gola, eta 72.ean bigarrena. Biak ala biak Axi Azpillagaren eskutik. Bien bitartean, zaleen babesa ikaragarria zen, eta bultzada eman zigun horrek. Hala, 76. minutuan gola sartu zuen Andoni Almorzak, penaltiz eta, neurketa amaitu baino lehen, laugarren gola sartzeko aukera izan zuen, birritan, Alvaro Robledok.

**Beste behin ere, urnietarren berotasuna izan zenuten: Iruneraino joan ziren, zuen alde egiteko.**

Kolapsatu egin zen Urnieta eta Irun arteko aldiriko trena. On-



Urnieta kideak gola ospatzen, Landetxaren aurkako partidari. UKE

gi-etorria eman zieten jokalariei Ventas futbol-zelaian eta, beroketatik hasita, babes handia erakutsi zioten taldeari, baita behin neurketa amaituta ere.

**Zein zapora hartzen du garaipenak lanez eta iraunkortasunez betetako denboraldi baten ondoren?**

Inork ez zuen igoera jokatu nahi azken partidari, etxetik kanpo eta aurkari zuzen batekin, baina patua ezin hautatu. Aurkari zuzen baten aurkako garaipena, bat gutxiagorekin eta 0-3 irabazita, kirol hau praktikatzen dugun guztiok izan dugun ametsa da. Konstantzia, konpromisoa eta lana, lana, lana.

**Taldea indartsu ikusten al duzu maila berrian lehitzeko, datorren denboraldiari begira?**

Taldea entxufatuta dago, lortutako garaipenez gozatuko dugu

**"AZKEN PARTIDAN, ZALEEN BABESA IKARAGARRIA ZEN, ETA BULTZADA EMAN ZIGUN HORREK"**

egun batzuetan, eta, ondoren, datorren denboraldiko plantilla prestatzen hasiko gara.

**Beste urtebetez, taldea gidatzen egongo al zara?**

Garrantzitsua da taldeari egonkortasuna ematea, belaunaldi-aldaketa egitea dagokigu, eta inportantea ikusten dugu lanildo berarekin jarraitzea. Eta, bai, datorren denboraldian, taldearen entrenatzaile izaten jarraituko dut.

Eskerrak ematen dizkiet taldea osatzen duten jokalariei nahiz gorputz teknikoari, baita klubeko zuzendaritzari ere. Eskerrak eman, era berean, denboraldi osoan, bai Urnietan, bai kanpoan, jarraitu gaituzten zale guztiei. Herrian, futbolaz gozatu nahi duten gazteak animatu nahi ditut, beren kluba da Urnieta Kirol Elkartea, eta, hori horrela izan dadin, lanean gabiltza buru-belarri. Amaitzeko esan igoera lortu duten jokalarien % 95 Urnieta dela eta, gainerakoak ere, hemengoak izango balira bezala! Eskerririk asko, eta, datorren denboraldira arte!



Kadete mailako neskek. UKE

## Denboraldiko azken partidetan ere garaipenaren bila

Denboraldia amaitzen dagoen arren, urnietarrek gogor eta bizi lehitzaren jarraitzen dute, garaipena lortzeko

**Erredakzioa** URNIETA

Urnieta Kamox Precision Machining kadete taldeak 21-16 irabazi zion Hernaniri, larunbat goizean jokaturako norgehiagokan. Taldeak datorren asteburuan amaituko du denboraldia eta, azken partida, Ordiziako Oian-gu taldearen aurka. Esanak esan, garaipena eskuratu beharko du Andoaingo Leizaran taldeari aurreratzeko, horien emaitzaren zain. Leizaran taldean lehen postuan dago lau punturekin, eta urnietarrak bigarren postuan birekin.

**Urnieta Artola Harategia senior taldea maila onean**

Larunbat arratsaldean, Urnieta Artola Harategia senior taldeak Aritz-batalde taldearen aurka, Urnieta Udal Kiroldegian (27-18), denboraldiko azken partidari.

Urnietarrek partida kontrolpean izan zuten lehen minututik amaierara arte, eta etxekoan lan onari aurre egin ezin izan zioten zarautzarrei nagusitasunez irabazi zioten. UKEkoak, Gipuzkoako Kopan partida bakarra galdu arren, hurrengo fasera sailkatzeko atarian geratu dira. Tolosak jokatu du, ligaxkako partida guztiak irabazita. Beraz, seniorrek merezitako atsedena izango dute eta, datorren denboraldian, indartsu itzultzeko, denboraldi honetan galdu duten Euskal Ligako mailara itzultzeko lehian.

Urnietarrak maila ona erakutsi dute denboraldi honetan, eta lorpen izugarriak eskuratu ez dituzten arren, badira sailkapeneko goiko postuetan denboraldia igaro dutenak. Datorren denboraldian, indartsuago itzuliko direla jakinarazi dute.



Urnieta  
udala





Jon Eskudero lehia bizian, Berria txapelketan, ezker gantxoia egiten. AIURRI

# Esku pilota eta pala, asteburuko protagonistak

Esku pilotak eta pala modalitateek protagonismo berezia eduki dute iragan asteburuan. Izan ere, Berria Txapelketa eta Herriartekoak jokatu zituzten Andoaingo pilotariek zein palistek

## Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo pilotariek garaipen garrantzitsua eskuratu zuten Idiazabalen aurka. Sei partidetatik lau irabazi dituzte, beraz, hurrengo fasera igaro dira. Zestoaren aurka jokatu dute datorren larunbatean, arratsaldeko, 18:00tan.

Joaneko partidaren bezalaxe, kadeteek eta seniorrek garaipena eskuratu zuten eta jubnilak garaipenaren bidean geratu ziren. Herriak, bere osotasunean, sendotasuna erakutsi zuen, eta afizionatu mailako txapelketa ikusgarrienetako batean lehiatzeko gai direla argi utzi zuten.

**Berria Txapelketa, nahi eta ezin** Berria Txapelketak garrantzia berezia izan ohi du pilotari afizionatuen artean; izan ere, klub garrantzitsuenek parte hartu izan ohi dute. Andoaingo Gazteleku Pelota Elkartearen artean izan zen. Kadeteetan Gaztañaga-Segurola bikoteak jokatu zuen

eta ezinbesteko garaipena lortu zuten Arregiren eta Bastidaren aurka (22-16). Partida osoan gehiago izan ziren, baina alde handiagoatik irabazteko aukera eduki zuten, hutsegiteak tarteko. Jubeniletan, Salbadorrek eta Cestauek jokatu zuten, baina beren mailatik behera jokatuta galdu egin zuten (17-22). Hirugarren eta azken partidaren, seniorretan, Usandizagak eta Eskudero ezinbestean garaipena lortu behar zuten, hurrengo fasera igarotzeko. Aurkariak ezagunak zituzten andoaindarrek, Juaristi eta Oteiza; maila handiko bi pilotari. Lehen tantotik gogo handiarekin jokatu zuten arren, aurkariak berebiziko erakustaldia eman zuten; gai-

**ANDOAIN EK ZESTOAREN AURKA JOKATUKO DU ESKUZ, LARUNBAT ARRATSALDEAN**

nera, andoaindarrek ez zuten ohiko maila erakutsi. Horra hor markagailuko isla (6-22).

## Amaitu da Herriarteko txapelketa pala motzean, larruz eta goman

Aurtengoan, nahi baino ibilbide laburragoa eduki dute Andoaingo palistek; gomazko palan, alde handiagoatik kanporatuak izan dira. Beste bi modalitateetan, berriz, oso alde txikiagatik geratu dira hurrengo fasera igaro gabe.

Gomaz, Anoeta nagusitu zen hiru partidetan. Banaka frontoi osoan 9-20, binaka 11-20 eta banaka zazpi barruan 16-20. Horiek horrela, andoaindarrek aukerarik ez eta anoetarrek igaro dira hurrengo fasera.

Larruzko paletan galdu egin zuten, nahi baino alde handiagoatik (35-20). Pala motzean irabaztea lortu zuten (32-40), baina, gutxienez, 28 tantotik behera gailendu behar ziren. Hau da, lau tantoko aldeagatik ez ziren hurrengo fasera igaro.



ORIAMENDI

## Ansa eta Zaldua, azken postuan

Sagardoaren txapelketako ligaxka amaitzeko bi jardunaldien faltan, Ansa eta Zaldua ia aukerarik gabe geratu dira, hurrengo fasera igarotzeko. Txapelketa kaskarra jokatzen ari dira eta hala erakusten du sailkapenak: lau partidetan hiru puntu soilik lortu dituzte, eta, beraz, azken postuan sailkatuta daude. Miraririk jaso ezean, ia ezinezkoa dute finalerdira igarotzea



AIURRI

## Aurrera darrai Iturzaetak

Datorren asteburuan, laugarren jardunaldia jokatu da Sorabillako frontoian. Larunbat arratsaldean, gizonen final zortzirenak jokatu dira eta baita emakumezkoen ligako azken norgehiagokak ere. Txapelketa estua eta zirraragarria espero da, izan ere, urtetik urtera palisten mailak hobera egiten du. Geroz eta gehiago dira Sorabillara bertaratzen direnak.

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa





## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 25

## ANDOAIN Deialdia

2022-2023 ikasturtean euskara ikasteko diru-laguntza. Informazio osoa: andoainarraeuskaraz.eus. Azken eguna: Ekainak 16.

## URNIETA Ekitaldia

Euken Garmendia zerrendaburuak eta Larraitz Ugarte EH Bilduko komunikazio buruak parte hartuko dute. 19:30, Zaldundegi.

## OSTIRALA 26

## URNIETA Kalejira

Ohiturak aginduta, hilabeteko azken ostiralero lez, kalera aterako da Kantazaun, kantu-kalejirarekin. 19:00, San Juan plazatik abiatuta.

## LARUNBATA 27

## URNIETA Tailerra

Autodefentsa feminista tailerra, Jabekuntza Eskolaren eskutik. 10:00, Kiroldegia.

## IGANDEA 28

## ANDOAIN / URNIETA Deialdia

Udal hauteskundeetan botoa emateko aukera izango da bi udalerrietan. Urnietan pilotalekuan, eta Andoainen Arrate pilotalekuan eta Allurralde kiroldegian. Ordutegia: 09:00-20:00.



Potx magoa, Andoaingo Santa Krutz jaietan. POTX

## URNIETA Magia ikuskizuna

Potx magoa izango da datorren ostiralean, hilaren 26an, Xoxokako eskolan. Arratsaldeko 18:00tan hasiko da hitzordua, eta magia gozatzeko aukera ederra izango dute bertaratzen direnek. Maiatzak 26, ostirala. 18:00, Xoxokako eskola.

## ASTEAZKENA 31

## URNIETA Matrikulazioa

Lourdes Iriondo Musika Eskolan 2023-2024 ikasturterako matrikulazioa egiteko epea, zabalik. Azken eguna: Maiatzak 31.

## OSTEGUNA 1

## URNIETA Irakurketa feminista

Ahalduntze-kontzientzia feministan sakonduko da. 17:30-19:30, Lekaio.

## ANDOAIN Erakusketa


Argazkilaritza taldeak osatutako erakusketa kolektiboa. Gehienak andoaindarrak dira edo kultur jarduera bat garatzen dute Andoainen. Ekainak 1-30, Bastero.

## OSTIRALA 2

## ANDOAIN Antzerkia

"Ez naiz inoiz Dublinen egon". Besteak beste, Aitziber Garmendia aktorearen parte-hartzearekin. 20:00, Bastero.

## ZINEMA



## ANDOAIN

## BASTERO

**Las buenas compañías**  
Lar., 27. 19:30, 22:00.  
Ig., 28. 19:30.  
Asti., 29. 19:30, 22:00.

## Corten

Ostg., 20:00.

**Patti y la furia de Poseidon**

Lar., 27. 17:00.  
Ig., 28. 17:00.

**Las buenas compañías**  
Maiatzak 27-29.



## SINOPSISIA

**Las buenas compañías**

**Zuzendaria:** Silvia Munt. **Aktoreak:** Alicia Falco, Elena Tarrats, Itziar Ituño, Ainhoa Santamaria, Mikel Laskurain, Itziar Aizpuru, Garazi Urkola. **Herrialdea:** Espainia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 93 min.

## Errenteriako gertaera, zinemara

1976ko uda. Beak (Alicia Falco) 16 urte ditu, eta herrialdean dabilzan aldaketa-areekin bat egiten du; emakume-talde batekin lankidetzan aritzen da kausa

feminista ikusarazteko eta abortatzeko eskubidea onartzeko. Oreretan, benetako gertaeretan oinarritutako filma da. Hainbat pasarte bertan grabatu zituzten, gainera.

**HERRI** 40  
**URRATS**

urratsak zubi  
Senpere · Maiatzak 14

**ELKARTASUN UHOLDEA BEHAR DUGU  
ZUBIAK ERAIKITZEN JARRAITZEKO**

**SUSTENDUA**

**LABORAL KUTXA ES87 3035 0059 8205 9073 1197**

**KUTXABANK ES98 2095 5045 8710 6117 7332**

**BIZUM BIDEZ, HERRI URRATS AUKERATUTA DOHAINTZA EGITEKO**



## KOMUNITATEA

## ZILEGI ESKOLA URNIETA

## Zilegi Astea

Joan den astean Urnietan izan da zerekin gozatu, euskaraz! Izan ere, Zilegi Eskola egitasmoak antolatuta Zilegi Astea egin dugu herritarren gozamenarako. Guztira, bederatzia saio izan ditugu herriari begirakoak. Bertan, hainbat gai landu ditugu, goiz eguerdi eta arratsalde, herriko zenbait txokotan. Batzuetan, hausnarketari eman diogu garrantzia, eta beste batzuetan, aldiz, praktikoagoak izan dira jarduerak.

Horren guztiaren aurrean, herriak ondo erantzun du. Datuei erreparatuta, ia 90 lagunek hartu dute parte Zilegi Astea eta, beraz, garrantzitsua izan da euskararen erabilera sustatzeko, elkarerraginean aritzeko, eta, aldi berean, Urnietako aisialdi eta kultur eskaintza indartzeko. Horrek guztiak indarra ematen digu, aurrerantzean ere, herriko jendearkin elkarlanean jarraitzeko.

Aurrera begira, hitzordu berriak etorriko dira, hilean behin, saioa izaten baitugu Zilegi Eskola medio. Oraingoan, ekainean izango da azken saioa, eta, era berean, ikasturteari amaiera emateko, ekitaldiren bat ere izango da.

Udako atsedenaldiaren ondoren, urriaren berriz ere bueltan izango da Zilegi Eskola, baina, bien bitartean, bestelako hainbat kontu ere izango dira herrian, euskaltzaleak batzeko eta, euskara bultzatzeko.

Eskerrik asko, beraz, parte hartu duzuen guztiei, nola gai-emaile, hala hizlari, zein herritar eta baita Urnietako Udalarirene, haren laguntzarik gabe ezingo baikenuke halako ekimenik antolatu. Jarrai dezagun Urnieta euskalduntzen!



AIURRI

## Sagardo eguna, Usurbilen

Aski ezaguna da sagaro eguna, Beterri-Buruntzan. Usurbildarrentzat festa handia. Argazkian ikus daitekeenez, Urnietako sagardoa dastatzeko aukera izan zen. Altuna, Eula, Elutxeta eta Oianumeko sagardoaz gozatu ahal izan zuten bertaratu zirenek. Andoingo Mizpiradi eta Gaztañaga sagardoa ere dastatu ahal izan zuten.

## POSTONTZIA

## IPAR HAIZEA PLATAFORMA ANDOAIN

## Andoingo bilketa selektiboaren gainbehera

Andoingo Ituna 2021ko otsailaren 18an sinatu zuten, Ipar Haizeak sustatuta, Andoingo Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiek (EHBildu, PSE-EE, EAJ-PNV, Elkarrekin Podemos). Itun honen betetze mailan aurrerapausoak eman dira geroztik, eta puntu gehienak beteta daude edo betetzen ari dira: saretxo metalikoak jarri ziren plastikoak ibaira (eta ondorioz, itsasora) ez erortzeko espigoian nahiz Santa Krutz zubian, 5 edukiontziak ipini ziren herriguneko eredu jarraituz Goiburu nahiz Celulosas inguruan, jaietan gaikako bilketa selektiboa egitea, sentsibilizazio kanpainak burutzea... Hala ere, puntu garrantzitsuenean (%70ko gaikako bilketa lortzea 2022rako, eta %65etik ez jaitsi) oraindik tartea dago lortzeko. Data gerturatzen zihuan heinean, Andoingo Itunaren jarraipen bilera ezberdinetan ez ginela ailegatuko garaiz aipatzen genuen, eta hala izan zen. Andoainean ez genuen %70ko gaikako bilketa lortu, eta nekez %65a hilabete gutxi batzuetan.

Gaikako bilketa dezente jaitsi zen eta organikoaren bilketa kg-ak baita ere, errefusa igoaz. Tartean, neurri batzuk hartuko zirela aipatu zuten udal gobernutik (batez ere, sentsibilizazioa), baina ez dira izan nahikoa eraginkorrak, ikusi denez. Eta hartutako neurrietako baten kasuan, saretxo metalikoak ezartzea, motz geratzen dela deritzogu, soilik puntu oso konkretu batean geratzen delako, gainerako zubiak eta Makaldegian irtenbide bat eduki gabe, nahiz eta Diputazioaren dirulaguntza eskaera egiteko aukera eduki, eta okerragoa dena, eskaera hori ez egitea eta aurrerapausoak ez ematea ondorioz.

Gauza bat eta beste, legegintzaldia amaitzean da eta oraindik ere %70ko gaikako bilketa ez dugu lortu. Pandemia aurretik %65ko gaikako bilketa inguruan mantentzen ginen, 2020ko martxoan %68an gaina jo genuen arte eta ondoren %60raino jaitsi zen momentu batzuetan bereizketa tasa. Dauzkagun azken datuen arabera, 2023ko urtarrilean etxebizitza eta komertzioetan %65 pasatxokoa izan zen, eta %59koa industriaguneetan. Otsaila eta martxoan datu horiek pare bat puntu jaitsi dira berriro.

Horregatik, hauteskundearen ondoren Udalean sartuko diren alderdi politiko nahiz zinegotzietan honakoa eskatzen diegu: gaikako bilketak %70a gainditzeko neurri eraginkorrak har ditzatela. Ipar Haizeatik bidelagun izango gara hobetzeko neurriak hartzean eta proposamen zehatzagoak egingo ditugu baita ere. Baina denon artean, adostasunez, neurriak hartzea ezinbestekoa izango da.



andoainDARRA  
euskaraz

## ESKERTZA

## BURUJABETZA ANDOAIN

## Eskerrik asko

Andoain-Burujabetzatik eskerrak eman nahi dizkiegu sinatu dutenei hauteskundeetan parte hartzeko aukera izan dezagun.

Zoritxarrez, ezin izan ditugu gaitzitu ezarri dizkiguten oztopo administratiboak.

Ea datozen udal hauteskundeetarako, traba administratiboak gaindituta, elkar ikusten dugun!

## ZORION-AGURRAK



ANDOAIN  
**Zorionak Jon**  
Maiatzaren 28an  
11 urte beteko  
dituz. Urte  
askotarako Jon!  
Zorionak etxeko  
guztion partez.



ANDOAIN  
**Aia Korta  
Martinez**  
Zorionak Aia! Gure  
etxeko txikiak bi  
urte egingo ditu  
Maiatzaren 28an.  
Jarraitu gure  
bizitzak alaitzen!  
Bi muxu erraldoi  
etxekoan partetik.



URNIETA  
**Naroa Artetxe  
Miguez**  
Mende laurden  
beteko du  
kuadrillako zoro  
zoragarriak! Urte  
askotako, poxo,  
plazer hutsa haiz!  
Muxu bat  
Korrokkaluen  
partez! Askok (ta  
eunetik eunea,  
hobeto) maite  
zaitugu!

## TELEFONO ZENBAKIAK

## URNIETA

Bertan: 943 008 000.  
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.  
Ertzaintza: 943 538 840.  
Osasun zentroa: 943 006 680.

## ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.  
Udaltzaingoa: 943 300 819.  
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.  
Osasun zentroa: 943 006 670.



Maidier Diaz eta Marijo Benitez andoaindarrak. AIURRI

# "Las buenas compañías" filman ikusiko ditugu

Maidier Diaz eta Marijo Benitez andoaindarrak egunotan zine aretoetan estreinatu den "Las buenas compañías" filmean agertzen dira. Larunbatean, igandean eta astelehenean Bastero Kulturgunean ikusgai izango da

## Xabier Lasa ANDOAIN

Franco hil osteko urte ktramilatsuetako batean, 1976an, girotzen da filma. Abortatzea legez kanpo zegoen garaietako emakumeen ibilerak kontatzen ditu. Hain zuzen, Errenteriako emakume feministek abortatzeko eskubidearen alde burutu zuten ekimen klandestino auzartar darabil pelikulak testuinguru gisa; izan ere, modu duinean abortatu nahi zuten gazteei Bidasoaldeko muga administratibo-politiko gaunditzen laguntzeko sarea antolatu zuten.

## Diaz eta Benitez, errodaje

Diazek eta Benitezek urte mordo daramate antzezen munduan, Donostiako Arte Eszeniko Tailerlean aktore formakuntza osoa jasoz geroztik. Iaz, "Las buenas compañías" pelikulan parte hartzeko aukera sortu zitzaion, eta halaxe jarri ziren Silvia Munt aktore eta zine zuzendari bartzelonarraren aginduetara; Errenterian ez ezik, Pasaian eta Hendaian hainbat eszena errodatu zituzten iazko abuztuan.

Alicia Falco, Itziar Ituño eta Elena Tarrats ditu protagonista nagusi. Nolanahi ere, Diazek eta Benitezek Aiurriri iazko azaroan eskainitako elkarrizketan adierazi zuten, hiru aktore aski ezagunen ibilerak pelikularenean kokatu arren, giza kolektibo bat protagonista izan zuen historia kontatzea izan da Munt zinegilearen asmoa, eta hargatik, indar handia hartzen dute hirukotearen inguruan dabilzan emakume solidarioen presentziak.

Benitezek elkarrizketan ziurtatu zuenez, Muntek interpretatzeko unean, askatasun osoa

eman zien antzezleei, protagonista nagusiei zein gainerakoei. "Historiaren kontakizunean, geu benetako protagonistak bagina bezala joka genezan eskatu zigun, eta, era horretan, bakoitzak, garetetik eta daki-gunetik asko jartzeko aukera eman zigun; zenbait eszena eta egoeratan, bizitza errealean nola erreakzionatuko genuen guk, halaxe antzezen genuen. Konparazio batera, kale istiluetan aurrean genuen Guardia zibilari bultzatzea egin behar bagenion, ez ginen moztzen..."


## Entretenu ez ezik, balioak ere transmititu

Maidier Diazek eta Marijo Benitezek elkarrizketan ez zuten zalantza izpirik agertu, publikoak filmari egingo dion harrearen gainean galdetuta. "Gure historia hurbileko problematika jakin bat, eta, giza sentimendurik barnekoienak bestetik, ondo uztartzen dituen kontakizuna da", zioen Benitezek. Diazek, berriz, zera gaineratu zuen: "Pelikula entretenigarria da, eta, gainera, dokumentu bikaina bilakatuko da emakumeon historiaren transmisioaren ikuspegitik. Are gehiago, gazteei mezu argia zuzenduko die: kontura gaitzela emakumeok geure askapenean egiten ari garen bidean, dena ez dela arrosa kolorekoa, trabaz beterikoa baizik, eta, aurrera egin badugu, geure ahaleginari eta sakrifizioari esker izan dela".

**LARUNBATEAN, IGANDEAN ETA ASTELEHENEAN FILMA IKUSGAI IZANGO DA BASTERON**



## Hauteskunde-gaua



## JARRAIPENA AIURRI.EUS GUNEAN EMAITZAK, BALORAZIOAK, IRUDIAK